

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **10/2019 Foru Araua, martxoaren 27koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aldaketari buruz**

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko martxoaren 27an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

10/2019 Foru Araua, martxoaren 27koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aldaketari buruz.

#### ZIOEN AZALPENA

Foru Arau honen helburua da arautzea Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean zehaztutako zenbait amatasun eta aitatasun prestazioen salbuespena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik, baita zerga hori arautzen duen Foru Arauaren 9. artikulua 12. apartatuaren idazketa berrian berriaz jasotzen diren pareko egoeren salbuespena ere, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Arau honek proportzionaltasun printzipioa errespetatzen du, eta xedapen orokor honen bidez estali nahi den premiari erantzuteko beharrezkoak diren arauak ditu. Ez dago xede horretarako beste neuririk, hartzaileen eskubideak gutxiago murrizten dituenik edo hartzaileei betebeharrak gutxiago jartzen dizkienik.

Ekimen horren bidez segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, eta koherentea da nazioko eta Europar Batasuneko gainerako ordenamendu juridikoarekin.

Foru arau hau izapidetzean gardentasun irizpidea aplikatu da; printzipio hori Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan arautzen da.

#### **Artikulu bakarra. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga aldatzea**

Aldatu egiten da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 9. artikulua 12. apartatua. Hona hemen aurrerantzean nola geratuko den idatzita:

“12. Errenta hauek salbuetsita daude:

a) Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren Testu Bategineko II. tituluko X. eta XV. kapituluetan eta VI. tituluko I. kapituluaren arautzen diren familia prestazioak, eta Gizarte Segurantzaren eta klase pasiboaren araubide publikoetatik jasotzen diren zurtasun pentsioak eta hartzeko pasiboak eta hogeita bi urtetik beherako biloben eta anai-arreben alde edo lan orotarako ezinduen alde aitortutakoak.

b) 8/2015 Legegintzako Errege Dekretua onesten duen Gizarte Segurantzari buruzko urriaren 30eko Lege Orokorren Testu Bateginaren II. Tituluaren VI. eta VII. Kapituluetan erregulatutako amatasun- eta aitatasun-prestazioak, Gizarte Segurantzaren araubide publikoetan jasotakoak.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako amatasun- eta aitatasun-prestazioa jasotzeko eskubiderik ematen ez duen Gizarte Segurantzaren erregimen baten barruan dauden langile publikoen kasuan, salbuetsita egongo da erditze, adopzio, zaintza eta aitatasunagatiko baimenetan jasotako ordainsaria, zeina urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartzen duen Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 49. artikulua a), b) eta c) letretan aipatzen baita, edo aurretik aurreikusitako egoerengatik aplikagarri zaion

legeria espezifikoan aitortutakoa. Paragrafo honetan hizpide diren ordainsarien edo prestazioen salbuetsitako zenbatekoaren muga izango da Gizarte Segurantzak dagokion kontzeptuagatik aitortzen duen prestazio maximoaren zenbatekoa. Soberakinak lan-etekin gisa tributatuko du.

c) Norbere konturako langileen edo langile autonomoen Gizarte Segurantzaren araubide berezian sartuta ez dauden profesionalei araubide berezi horren ordezkotako gisa jarduten diren gizarte aurreikuspeneko mutualitateek onartzen dizkieten prestazioak, betiere aurreko a) eta b) apartatuetan aipatutako egoera berdinengatik jasotako prestazioak badira.

Kasu horietan, salbuespen horrek muga bat dauka: Gizarte Segurantzak kasuan kasuko kontzeptuagatik onartzen duen prestaziorik handienaren zenbatekoa. Horren gaineko kopurua lanaren etekin gisa kargatuko da. Zergadun batek Gizarte Segurantzaren prestazioaz gainera aurrean aipatutako mutualitateek emandakoak jasotzen baditu, gaindikina azken horietan gertatuzat joko da.

d) Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateek kooperatibetako bazkideei onartutako prestazioak, betiere aurreko a) eta b) apartatuetan aipatutako egoera berdinengatik jasotako prestazioak badira.

Salbuespen honek muga bat dauka: Gizarte Segurantzak kasuan kasuko kontzeptuagatik onartzen duen prestaziorik handienaren zenbatekoa. Horren gaineko kopurua lanaren etekin gisa kargatuko da. Zergadun batek Gizarte Segurantzaren prestazioaz gainera aurrean aipatutako borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateek emandakoak jasotzen baditu, gaindikina azken horietan gertatuzat joko da.

e) Funtzionarioek zerbitzuak ematen dituzten organo edo erakundetik jasotzen dituzten prestazioak minbizia edo beste gaixotasun larri bat duten seme-alabak zaintzeko lanaldia murrizteagatik. Kasu horiek urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 49. artikuluko e) apartatuan arautzen dira.

Salbuetsitako zenbatekoaren muga izango da Gizarte Segurantzak minbizia edo beste gaixotasun larri bat duten adingabekoak zaintzeagatik onartzen duen prestaziorik handienaren zenbatekoa. Kasu horiek Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren II. tituluko X. kapituluaren arautzen dira.

f) Autonomia erkidegoek eta toki erakundeek ematen dituzten amatasun eta aitatasun prestazio publikoak.

g) Jaiotzagatik, erditze anitzagatik, adopzioagatik, adopzio anitzagatik, kargupeko seme-alabengatik eta zurtasunagatik jasotzen diren gainerako prestazio publikoak”.

#### AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau indarrean sartuko da ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean, eta ondorioak izango ditu 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, salbu eta azaroaren 27ko Pertsona Fisikoen gaineko Zergaren 33/2013 Foru Arauaren 12. atalaren b), c) eta d) letretan xedatutakoa, foru-arau honetan emandako idazkeraren arabera. Ondorioak izango ditu halaber preskribatu gabeko aurreko ekitaldietan.

Bigarrena. Gaitzea.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 27a

*Presidente*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**